

Nola egin poster onak?

Maidier URRETABIZKAIA

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Posterraren indarguneak eta ahulguneak.-III. Aurretiazko lana: posterraren laburpena.-IV. Posterra.-V. Posterra apaintzeko aholkuak.-VI. Akatsik ohikoenak.-VII. Posterraren aurkezpena.-Bibliografia.-Eranskinak.

I. Sarrera

“Ponentziak, mahai-inguruak, ahozko komunikazioa edo posterrak izan ohi dira kongresuetan bitartekorik erabilienak; adierazteko modu hauek ahalbidetzen baitute kongresu hauetara joaten direnen artean informazioa elkartrukatzea” (GUARDIOLA, 2010). Kriminologia graduko hirugarren mailan egonik, irakasle bati baino gehiagori entzun diogu laugarren mailan egin beharreko gradu amaierako lanari buruzko iruzkinen bat edo beste. Ikerketa proiekturen batetik eratorritako emaitzak azaltzeko hainbat modu badaude ere, Kriminologiako gradu amaierako lana poster bidez aurkeztea gomendagarria dela eman digute jakitera.

Zer da poster bat, baina? EUSKALTERMen arabera poster bat da “ikertzaile batek biltzar batean egindako ekarpen zientifikoa, kartel gisa erakusteko moduan prestatutakoa”. Denboran atzera eginda, esan daiteke 1970eko hamarkadan hasi zirela poster formatuko aurkezpenak egiten. Eta esan daiteke, gaur egun, bileren zientifikoetan edo kongresuetan bitartekorik erabilienetarikoa dela; izan ere, ahozko komunikazioaren helburu bera du, baina ahozko komunikazioan azaldu ezin diren ikerketak — edozein arrazoi dela medio—, proiektuak edo esperientziak azaltzea ahalbidetzen du. Kontuak kontu, ez dago ahozko komunikazioa baino aurkezpen maila baxuagokoa edo kalitate txarragokoa dela esaterik (Guardiola, 2010).

Posterra ikaragarriko potentziala biltzen duen komunikazio mota da. Ahozko komunikazioaren iheskortasuna alde batera utzi eta edukiaren igorpen zehatz, argi eta iraunkorra (bilerak edo kongresuak iraun bitartean) ahalbidetzen du. Horrela, modu geldo batean analizatzeko aukera dute bilerara joan direnek eta komunikazio ororen helburua errazten da; hau da, autorearen mezua igorri eta gainerakoek hau ulertzea.

Behin hau jakinda, eta gradu amaierako lana gerturatzen ari dela ikusirik, aurkezpen egunerako taxuzko poster bat egiteko irizpide gogoangarri batzuk azalduko dira ondorengo orrialdeetan, denak ere Elena GUARDIOLAREN *El póster científico*¹ artikuluan oinarrituak.

Elena GUARDIOLA, medikuntzan eta kirurgian lizentziatutako doktorea izateaz gain, Dr. Antonio Esteve Fundazioko (1983) kidea da. Fundazio honen helburua farmakoterapeutika sustatzea da, komunikazioaren eta eztabaida zientifikoaren bidez. Horretarako, diziplina anitzeko nazioarteko bilerak antolatzen dituzte, non ikertzaile gutxi batzuek euren lanen emaitzak eztabaidatzen dituzten (Fundación Dr. Antonio Esteve, 2015).

¹ GUARDIOLA E. “El póster científico”. En: SERÉS E, ROSICH L, BOSCH F, coordinadores. *Presentaciones orales en biomedicina. Aspectos a tener en cuenta para mejorar la comunicación*. Cuadernos de la Fundación Dr. Antonio Esteve 20°. Barcelona: Fundación Dr. Antonio Esteve; 2010. 85-102 or.

Dr. Antonio Esteve Fundazioak antolatutako ekintzen artean biltzen dira, besteak beste, espainiako ikertzaileez osatutako mahai-inguruak.

Esan bezala, Elena GUARDIOLAK Dr. Antonio Esteve Fundazioaren koadernoan idatzitako artikulu batetan oinarrituko gara lan monografiko hau egiteko. Era berean, ondorengoak dira idazleak berak erabilitako erreferentzia bibliografiko batzuk:

- BLOCK, S. *The do's and dont's of poster presentation*. Biophys J. 1996; 71:3527-9.
- CARLIN BW. *Making an effective presentation*. (2009ko urtarrilaren 15ean eskuratua): <http://www.chestnet.org/downloads/CHEST/posters.pdf>
- DAY RA. “Cómo preparar un cartel”. Day RA, editor. *Cómo escribir y publicar trabajos científicos*. Washington: Organización Panamericana de la Salud; 1990. pp. 142-5.
- *ePosters.net the Online Journal of Scientific Posters* (<http://eposters.net/>). (2009ko otsailaren 28an eskuratua).
- ERREN TC, BOURNE PE. Ten *simple rules for a good poster presentation*. PLoS Comput Biol. 2007;3:e102.
- GOSLING PJ. *Scientist's guide to poster presentations*.
- MILLER L, JOHNSON C, WEAVER A. *Expanded guidelines for giving a poster presentation*. *American Society of Primatologists*. (2009ko otsailaren 28an eskuratua): http://www.asp.org/Education/Howto_on
- PÉREZ FERNÁNDEZ E. *El microcartel, una herramienta eficaz para la comunicación científica*. ACIMED. 2000;8:208-15.

Autoreari buruzko datu hauek aipatuta, goazen bada poster egoki bat egiteko jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren jakitera.

II. Posterraren indarguneak eta ahulguneak

Indarguneak	Ahulguneak
(1) Entzuleek posterraren edukia irakurri, ikertu eta behatu dezakete nahi duten momentuan eta nahi adina denboran.	(1) Hartzaileak posterrera hurbildu behar du, eta ahalegin bat egin beharko du bertara iristeko; ez dago eserita ahozko komunikazioetan bezala, eta jarrera aktiboa azaldu behar du posterraren aurrean: irakurri, taulak interpretatu, autorearekin harremana egin...
(2) Autoreekin harreman zuzena izatea ahalbidetzen du posterrak (batez ere autoreak, kongresuaren antolatzaileen argibideei jarraiki, posterraren ondoan egon behar duenean).	(2) Kongresu batzuetan, posterrak ezartzen diren lekua dela medio, aipatutako ahalegin hori are handiagoa da; posterrak aurkezpenak egiten diren lekutik urrun kokatzean adibidez.
(3) Irudikapen grafikoak (posterrak berak) igorri nahi den horren edukia ulertzea erraz dezake.	(3) Beste batzuetan, posterren erakusketak ordutegi “bereziatan” egiten dira; goizeko lehen orduan (beste ekintzak hasi aurretik), bazkalorduan, azken orduan (kongresuko ekintza guztiak amaitu direnean), kongresuko azken egunean edo ponentzia edo saio plenarioen ordu berean. Beste batzuetan, poster asko aurkezten diren kongresuetan batez ere, poster bakoitzaren erakusketa denbora oso motza izan ohi da, eta honek interesgarria izan daitekeen informazioa heltzea eragozten die
(4) Errazagoa da irudiak gogoratzea edo hauei eustea (batez ere hauek denbora batez begiratzeko aukera izanik) ahozko komunikazio bat gogoratzea edo eustea baino.	
(5) Posterrak (ondo diseinaturik badago) lan bat modu atsegin, bizi eta erakargarrian aurkezteko aukera ematen du.	

Behin gure lana osatuta, poster formatuan aurkeztea erabaki dugunean, posterraren berezko indarguneak nabarmentzen eta ahulguneak ekiditen saiatu behar da.

III. Aurretiazko lana: posterraren laburpena

Kongresu batean egin beharreko edozein aurkezpen baino lehen eman beharreko pausoa, aurkeztu beharreko lanaren laburpena egitea da. Oro har, laburpen honek kongresuko antolatzaileek ezarritako argibideak bete behar izaten ditu formatu, egitura eta luzapen aldetik, eta epe jakin bat egoten da laburpen hau bidaltzeko. Batzordea laburpenean soilik oinarrituko da gure lana onartzerako edo baztertzerako garaian. Horrexegatik da hain garrantzitsua aurkeztu beharreko lanaren laburpen egokia egitea.

Egitura:

- Izenburua
- Autorea(k)
- Ikastegia(k)
- Sarrera, hipotesiak eta helburua
- Metodologia (materiala eta metodoak)
- Emaidzak
- Konklusioak
-

Ezaugarriak:

- *Per se* ulertu behar da; hau da, ez da beste informazio-iturri batzuetara jo behar ulertzeko.
- Lanaren, ikerketaren edo esperientziaren funtsezko puntuak agertu behar dira.
- Luzeera mugatua du (antolatzaileek zehaztuko dute karaktere edo hitz kopurua).
- Argia, motza eta zehatza izan behar da; horretarako, esaldi motzak erabili behar dira, hitz egokienak hautatu eta lengoia zaindu.
- Laburpena “artikulu txiki” bat dela pentsatu behar dugu, beraz ez ditu bildu behar:
 - Beharrezkoa ez den informazioa.
 - Deskribapen zehatzegiak.
 - Emaidza gehiegi.
 - Posterrean azalduko ez den informazioa.

IV. Posterra

Posterrak elkarren osagarri diren bi alderdi garrantzitsu ditu: edukia eta aurkezpena; hau da, posterraren bidez adierazi nahi duguna (ikerketa baten berri ematea adibidez) eta nola aurkeztuko dugun (informazioa egituratzea). Beraz, posterra aurkeztu aurretik edukia landu beharko da. Horretarako, ezinbestekoa da aurreko atalean azalduko laburpena egitea eta argi izan behar dugu zeintzuk izango diren bertan barneratu beharreko taulak eta irudiak.

Posterrak ordena logiko bat jarraitu behar du, ezkerretik eskuinera eta goitik behera doana. Hau kontuan izanik, posterra hainbat zatitan bereizteak diseinu egoki bat izatea ahalbidetuko digu (ikus hurrengo orrialdea).

Posterraren idatzi-eremuak aurkeztu beharreko lanaren ezaugarrien arabera alda daitezke. Batzuetan, kongresuko antolatzaileak izango dira posterraren nondik-norakoak zehaztuko dituztenak; kasu horietan zehatz-mehatz jarraitu beharko dira. Dena den, oso eraginkorra eta gomendagarria da kongresu bereko aurreko ediziotan aurkeztutako posterrei begiradatxo bat ematea.

Izenburua: Batzordeari aurkeztutako laburpenaren berdina izan behar da. Oso garrantzitsua da izenburu egoki bat aukeratzea, batez ere poster gisako aurkezpenetan, jendearen arreta erakartzeko daukagun bitarteko nagusia izango baita.

- Lanaren, ikerketaren edo esperientziaren gaia zehatz-mehatz identifikatu behar du.
- Zehatza eta espezifikoa izan behar du: ahalik eta informazio gehien bildu letra gutxitan.
- Laburduren, siglen eta akronimoen erabilpena ekidin behar da.

Autoreak: Posterrean agertzen diren autoreak laburpenean agertzen zirenak izan behar dute. Pertsona bat lan bateko autore kontsideratzeko ezinbestekoa da bertan aktiboki parte hartu izana. Autore kontsideratzen ez diren baina lanean parte hartu dutenen izena esker onen atalean barneratuko da.

Filiazioa: Autoreen lan-eremua den sailaren eta ikastegiaren izena agertzeaz gain, hiriaren eta lurraldearen izena ere agertu beharko du.

(Hurrengo orrian ikusgai gainerako atalei dagokiena).

<p>LOGOA (Aukerakoa)</p>	<h1>Posterraren izenburua</h1> <h2>Autoreen izen-abizenak</h2> <h3>Autoreen ikastegia/erakundea</h3>	<p>LOGOA (Aukerakoa)</p>
<h4>Sarrera</h4> <p>Laburra izan behar da. Irakurleak gaia ezagutzeko balio du eta ondorengo ezaugarriak bildu behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Aurrekariak, gaiaren berrikuspen laburra.• Gaiaren garrantzia teorikoa edo praktikoa.• Hipotesiak.• Lanaren helburuak.• Definizioak (kasu batzuetan beharrezkoa izan daiteke kontzeptu jakin bat definitzea).	<h4>Emaitzak</h4> <p>Lortutako emaitzak azalduko dira, eta hauek ikertuta, hasieran sortutako hipotesia baieztatu den edo ez adieraziko da. Daturik esanguratsuenak eta ikerketaren helburuarekin lotura gehien dutenak soilik aipatuko dira.</p> <p>Testu luzeegiak eta datu gehiegi biltzen dituztenak ekiditen saiatuko gara. Atal honetan oso erabilgarria izango da taulak eta irudiak erabiltzea.</p>	<h4>Konklusioak</h4> <p>Oro har, konklusioak biltzen dituen atal espezifiko bat egon ohi da poster guztietan (askotan, izenburua irakurri eta konklusioetara jotzen du irakurleak zuzenean). Beraz, atal honetaz ez da ahaztu behar.</p> <p>Gainera, kasu batzuetan, emaitzen inguruko eztabaida bikiren bat ere barneratu daiteke.</p>
<h4>Metodologia</h4> <p>Atal honen bidez jakin behar du irakurleak lana aurrera eramateko modua zein izan den. Datuen lorpenari, bilketari eta analisiari buruzko deskribapena azaldu behar da; hau da, ikerketaren diseinua, nola eraman zen aurrera, izandako fase desberdinak, ze aldagai hartu ziren kontuan, nola behatu ziren datuak...</p>	<h4>Taulak, irudiak etab.</h4> <p>Baliabide grafikoak erabiltzeko bitarteko egokia da posterra. Horregatik dira hain ezohikoak testu hutsean soilik egindako posterak. Irudien eta testuaren arteko oreka aurkitzea izango da poster arrakastatsu bat lortzeko bidea.</p> <p>Erabilitako edozein irudik kalitate onekoa izan behar du (bestela hobe ez jartzea), eta oso eraginkorrak dira datuak erakusteko.</p> <p>Neurriari dagokionez, postererantz gehiegi gerturatzeko beharrik izan gabe ikusteko modukoak izan behar dute. Eskemak erabiltzea ere oso eraginkorra izan daiteke kontzeptuak hobeto ulertzeko.</p>	<h4>Bibliografia (aukerakoa)</h4> <p>Atal hau ez da derrigorrezkoa, eta posterraren zati hau gure lanaren inguruko informazio gehiago emateko erabil daiteke.</p> <p>Erreferentzia bibliografikoak gehitzea erabakiz gero, garrantzitsuenak hautatuko ditugu, gaiari dagokionean beharrezko kontsideratzen ditugunak.</p>
		<h4>Esker onak (aukerakoa)</h4> <p>Hemen ezarriko dira (nahi izanez gero) lanean parte hartu duten baina autore ez diren pertsonak edota lanean, modu batean edo bestean, parte hartu duten erakundeak, instituzioak, asoziazioak...</p>

V. Posterra apaintzeko aholkuak

Ondorengo lerroetan poster bat diseinatzerako garaian lagungarriak izan daitezkeen iradokizun batzuk biltzen dira. Esan beharra dago ez direla zehatz-mehatz jarraitu beharreko arau zorrotzak, nolabaiteko orientabidea baizik. Azken batean, azken erabakia autoreen eta euren gustuen araberakoa izango da. Gaur egun, praktika pixka batekin, edozeinek egin dezake poster propio bat ondorengo programa informatikoak erabiliz, besteak beste:

- Adobe Illustrator
- Adobe InDesign
- CorelDraw
- CorelDRAW
- Indesign
- Macromedia Freehand
- Microsoft
- Microsoft Word
- Omnigraffle
- Photoshop
- PowerPoint
- QuarkXPress

Web orrialde batzuetan posterrak egiteko txantiloak deskarga daitezke; adibidez, PosterPresentations.com edota PosterSession.com.

http://www.posterpresentations.com/html/free_poster_templates.html
<http://www.postersession.com/poster-templates.php>

Letra mota eta neurria

Ez dira letra larriak soilik erabili behar. Irakurtzen dugunean, formak identifikatzen ditugu; letra guztiak antzekoak badira, ahalegin handiagoa egin behar da bereizteko.

Letra mota sinpleak erabili, Arial edo Helvetica adibidez, eta inoiz ez letra mota desberdin bi baino gehiago poster berean.

Testuaren lerrokadura zaindu behar da. Kontuan izan behar da testua bi alboetan lerrokatzen bada tarte handiak gera daitezkeela hitzen artean.

Azpimarraketa ez da gomendagarria (azpimarratutako hitzak okerrago ikusten dira urrutitik). Testua nabarmentzeko letra etzana edo lodia erabiltzea hobesten da.

Ez da eskuz idatzi behar, ez izenburua eta ezta testua ere. Praktika hau ohikoa zen duela gutxira arte, baina egungo teknologia berriekin zaharkitua geratu da eskuz idaztearena.

Gomendioak (aurreko orrialdeko ereduak ikusgai)	
Izenburua	1,5-2 metrotatik irakurtzeko modukoa
	Letra lodia.
	Gutxienez 36 puntuko neurria
	Posterreko gainerako testuarekiko proportzionala
Autoreak, filiazioa eta izenburuak	Posterraren izenburua baino neurri txikiagoa
	Letra lodia
	Gutxienez 24 puntuko neurria
Azpiatalen izenburuak	Atalen izenburuak baino neurri txikiagoa
	Letra lodirik ez
	Gutxienez 20 puntuko neurria

Edukia

Posterraren edukiari buruz esandakoa kontuan izateaz gain, ondorengo puntuak gogoratzea komeni da:

- Irudiak eta taulak gailendu behar dira. Autore batzuen esanetan, posterraren %50a irudi grafikoei eskaini behar zaie.
- Atal desberdinak tarte zurien bidez bereizi behar dira, baina oreka bat lortu behar da: tarte zuri gehiegi utzi gabe eta atalak elkarrengandik gertuegi utzi gabe.
- Esanguratsua ez den informazioa ez da posterrean sartu behar, irakurlearen atentzioa desbideratzen delako eta igorri nahi diren ideiarik garrantzitsuenak gogoratzea oztoka dezakeelako.
- Posterrean idazkera eta ortografia zaindu behar dira bereziki (akatsak handitzeko joera du posterrak eta inkontzienteki akatsei erreparatzeko joera dugu gizakiok).
- Posterreko informazio oro kontsistentea izan behar da (zifrek, datuek eta antzekoek testuarekin, taulekin eta figurekin bat etorri behar dute).

Neurriak

Kongresuko antolatzaileek adierazitako neurriak kontuan izan behar dira eta ezingo dira baztertu. Posterra kongresuak adierazitakoa baino handiagoa bada, gerta daiteke ezin aurkeztea.

Apaingarriak

Posterraren azken bertsioa egin baino lehen, komenigarria da zirriborro antzeko bat egitea. Hau bereziki garrantzitsua da posterra egiterako garaian, egile bat baino gehiago daudenetan: detailerik ñimiñoenean ere bat etorri behar dute egile guztiek.

Koloreak, irudi motak, grafikoak

Garrantzitsua da erabiliko diren koloreak zeintzuk izango diren jakitea. Testua, taulak eta irudiak nabarmendu behar dira, fondoarekin nahastu gabe. Kolore biziegiak irakurlearen arreta galarazi dezakete. Era berean, poster “aspergarriak” ez dira erakargarriak. Oro har, kolore aldaketak erabili behar dira alderdi batzuk nabarmentzeko, desberdintzeko edota irakurleen interesa erakartzeko.

Taulak, irudiak eta gainerako elementu grafikoek bat etorri behar dute euren neurriarekin, tipografiarekin eta koloreekin, eta baita posterrarekin ere.

“Gustu ona” gailendu behar da. Ezin da kongresu batean aurkeztu beharreko poster bat (lan bat azaltzeko helburua duena) publizitate-kartel batekin nahastu.

VI. Akatsik ohikoenak

Jarraian kongresuetan aurkeztutako posterretan ohikoenak diren akatsetako batzuk biltzen dira, eta baita hauek konpontzeko aholkuak ere.

Testua irakurtzeko zailtasunak (Letra txikiegia, lausotua...)

Konponbideak:

- Letraren neurria handitzea (kontuan izanik izenburuaren, atalen eta testuaren neurriarekin bat etorri behar duela).
- Letra mota: sinplea izatea, urrunetik erraz irakurtzeko modukoa eta irakurlearen arreta deitzeko modukoa. Ez erabili letra konplikatuak (adibidez, Times New Roman, oso erabilia da testuak idazteko, baina ez da egokia poster baterako; izan ere, urrutitik ikustea eta irakurtzea zaila da).
- Ez erabili letra larriak soilik (izenburuetan ere letra larri eta xeheak erabili).
- Letra lodia edo etzana erabili datu edo informazio esanguratsua nabarmentzeko (ez azpimarraketa).
- Posterra ondo irakurtzen dela ziurtatu (gutxienez metro bateko distantziatik).

Poster “beteegia”

Konponbideak:

- Posterrean agertu beharreko informazioa mugatua da (ez da “dena” sartzen). Beraz, hautaketa egin behar da.
- Punturik garrantzitsuenetan oinarritu eta puntu hauen alderdirik interesgarrienak soilik aukeratu.
- Testu gehiegi baldin badago: baliabide grafiko gehiago erabili (taulak, irudiak). Gogoan izan irudi grafiko hauetan agertzen den informazioa ez dela testuan errepikatu behar.
- Argi izan behar da poster bat ez dela letra handiko testu bat.

Edukiaren antolaketa okerra

Konponbideak:

- Kongresuko antolatzaileek ezarritako irizpideak jarraitu.
- Informazioa zutabeetan antolatzeak irakurketa errazten du.
- Posterreko testua figuren inguruan antolatzea.
- Atal edo azpiatal bakoitzak bere izenburua izan behar du: irakurlearentzat gida modukoak dira, momentu bakoitzean zer irakurtzen ari den jakitea ahalbidetzen diotenak.
- Taula eta irudi guztiek ohar-oin edo testu esplikatiboa behar dute: irakurlea taula edo irudi bat irakurtzen ari denean, hau azaltzen duen testu bat azaldu behar da ondoan edo oinean.

Atentzioa desbideratzen duten elementuak

Konponbideak:

- Diseinu sinple bat erabiliz atentzioa desbideratzen duten elementuak saihestuko dira.
- Ez erabili argia islatzen duten edo distiratsuegiak diren materialak (zaila izan daiteke posterraren edukia ikustea).

- Ez erabili kolore argiegiak fondoa argia bada, eta ezta kolore ilunegiak fondoa iluna bada ere. Kolore deigarriak erabiltzea ere ez da komeni.

VII. Posterraren aurkezpena

Poster bat egiteak ahalegin handia eskatzen du, eta beraz, oso garrantzitsua izango da aurkezpen on bat egitea; ez da nahikoa antolatzaileek eskatutako lekuan zintzilikatzearekin. Aurkezlearen eta entzuleen arteko interakzio egoki bat egotea beharrezkoa da.

Posterraren aurkezpena modu desberdinetan egin daiteke, kongresuaren arabera. Antolatzaileek zehaztuko dute nola egingo den aurkezpena. Dena den, aurkezpena mota batetako edo bestekoa izan, kontua posterraz disfrutatzea eta gaiaz eztabaidatzeko prest egotea da; azken batean, hau baita posterraren atzean ezkututzen den helburua.

Aurkezlea posterraren alboan kokatzen da (ez aurrean), gutxienez kongresuko antolatzaileek ezarritako denboran zehar, oro har, 1-2 ordu. Gomendagarria da ordua baino lehentxeago iristea; horrela, dena ondo dagoela ziurtatu ahal izango da, posterraren kopia txikiak banatu ahal izango dira, eta bisita-txartelak prestatu daitezke interesatuta dauden entzuleei banatzeko.

Aurretiaz, posterraren gaiari lotutako artikuluren bat publikatu badugu edota aldizkariren batek aurkeztera goazen ikerketaren eskuizkribua onartu badu, ideia ona izan daiteke argitalpenaren separatak edo kopiak (argi uzten dutenak prentsako artikulua bati buruz ari garela) izatea eskatzen digutenentzat.

Bisitariekin hitz egiteko eta harremanak egiteko prest egon behar den arren, ez ditugu gure azalpenekin gogaitu behar. Bisitariari denbora eta espazioa utzi behar zaio posterra bere kabuz eta bere erritmoan beha dezan. Interesa erakusten badu, behar adina azalpen emateko prest eta gaiaz eztabaidatzeko prest agertu behar dugu. Hau egiterako garaian, kontuan izan behar da posterra laguntza hutsa dela, eta ez dugula zuzenean irakurri behar azalpenak emateko. Beraz, posterrari buruzko aurkezpen-gida labur bat prestatuta izan beharko dugu punturik garrantzitsuenak azaltzen dituena. Gogoan izan behar da poster baten arrakasta ez dela ikustera gerturatzen diren bisitarien bidez neurtzen; pizten duen interesarengatik eta sortzen duen eztabaidagatik baizik.

Pare bat orri eta bolalumaren bat eramatea gomendagarria da oharrak hartzeko: bisitarien iruzkinak edo gomendioak jasotzeko, harremanetan mantentzeko izen-abizenak eta telefono zenbakiak biltzeko...

Kasu batzuetan eraginkorra izan daiteke posterraren edukia edo gure azalpenak osatzeko informazio gehigarria erabiltzea (bideoren bat edo web orrialderen bat esaterako).

Bibliografia

- ANTÚNEZ G, RAMÍREZ W, RODRÍGUEZ Y. “El cartel como modalidad de presentación de trabajos científicos en medicina veterinaria”. *Rev Electrónica Vet REDVET*. 2006;7(11). (2009ko urtarrilaren 15ean eskuratua): <http://www.veterinaria.org/revistas/redvet/n111106/110620.pdf>
- BLOCK, S. *The do's and don'ts of poster presentation*. *Biophys J*. 1996; 71:3527-9.
- BOULLATA JI, MANCUSO CE. «A “how-to” guide in preparing abstracts and poster presentations”. *Nutrition Clin Pract*. 2007; 22:641-6.
- CARLIN BW. *Making an effective presentation*. (2009ko urtarrilaren 15ean eskuratua): <http://www.chestnet.org/downloads/CHEST/posters.pdf>
- DAY RA. “Cómo preparar un cartel”. In: Day RA, editor. *Cómo escribir y publicar trabajos científicos*. Washington: Organización Panamericana de la Salud; 1990. pp. 142-5.

- DOMÍNGUEZ P. “El pòster: una forma de comunicación científica que es mereix ser potenciada”. *But Soc Cat Pediatr*. 1994;54:59-60.
- ePosters.net the Online Journal of Scientific Posters* (<http://eposters.net/>). (2009ko otsailaren 28an eskuratua).
- ERREN TC, BOURNE PE. “Ten simple rules for a good poster presentation”. *PLoS Comput Biol*. 2007;3:e102.
- FISCHER BA, ZIGMOND MJ. *Attending professional meetings successfully*. Pittsburgh: University of Pittsburgh; 1999.
- FUNDACIÓN DR. ANTONIO ESTEVE. (13 de Mayo de 2015). Obtenido de Fundación Dr. Antonio Esteve: <http://www.esteve.org/publicaciones/cuadernos/>
- GOSLING PJ. *Scientist's guide to poster presentations*. New York: Kluwer Academic/Plenum Pub; 1999.
- GUARDIOLA, E. (2010). “El póster científico”. *Cuadernos de la Fundación Dr. Antonio Esteve* (20), 85-102.
- HAMILTON CW. “At a glance. A stepwise approach to successful poster presentations”. *Chest*. 2008;134:457-9.
- JACOBS JL. “Keep attendees awake. Writing effective presentations for international conferences”. *Chest*. 2008;134:204-6.
- JARA CASCO E. “Presentación de trabajos científicos en cartel o póster”. *Rev Cubana Med Gen Integr*. 2000;16:410-5.
- KEEGAN DA, BANNISTER SL. “Effect of colour coordination of attire with poster presentation on poster popularity”. *CMAJ*. 2003;169:1291-2
- MATTHEWS JR, MATTHEWS RW. *Successful scientific writing. A step-by-step guide for the biological and medical sciences*. 3ª ed. Cambridge: Cambridge University Press; 2007.
- MAUGH TH II. “Poster sessions: a novel look at scientific meetings”. *Science*. 1974;184:1361.
- MILLER L, JOHNSON C, WEAVER A. “Expanded guidelines for giving a poster presentation”. *American Society of Primatologists*. (2009ko otsailaren 28an eskuratua): http://www.asp.org/Education/Howto_on Posters.html
- MORIN KH. “Poster presentations: getting your point across”. *MCN*. 1996;21:307-10.
- PÉREZ FERNÁNDEZ E. “El microcartel, una herramienta eficaz para la comunicación científica”. *ACIMED*. 2000;8:208-15.
- PURRINGTON CB. *Advice on designing scientific posters*. (2009ko urtarrilaren 15ean eskuratua): <http://www.swarthmore.edu/NatSci/cpurrrin1/posteradvice.htm>
- SORGI M, HAWKINS C. “Guía para la preparación de exposiciones de pósteres”. In: SORGI M, HAWKINS C, editores. *Investigación médica. Cómo prepararla y cómo divulgarla*. Bartzelona: Ediciones Medici; 1990. 175-6 or.
- WOLCOTT TG. “Mortal sins in poster presentations or how to give the poster no one remembers”. *Newsletter Soc Integr Compar Biol*. 1997;Fall:10-1.
- WOOLSEY JD. “Combating poster fatigue: how to use visual grammar and analysis to effect better visual communications”. *TINS*. 1989;12:325-32.
- WRITING @ CSU. *Writing guides. Poster sessions*. (2009ko otsailaren 28an eskuratua): <http://writing.colostate.edu/guides/speaking/poster/index.cfm>

Delitugilearen tratamendu psikologikoa irakasgaien aurkeztutako poster bat (BELDARRAIN, O; JAUREGUI, A; RUÍZ, D; URRETABIZKAIA, M., 2015)



ESPETXERATUTAKO DELITUGILE PSIKOPATEN TRATAMENDUA

JAUREGUI, A; RUIZ, D; BELDARRAIN, O; URRETABIZKAIA, M.
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO KRIMINOLOGIAKO GRADUA



Sarrera

Violence Reduction Program (VRP), istorio antisozial edota bortitzak pairatzen dituzten subjektuen bortizkeriaren arriskua gubitzea zuzendutako programa terapeutikoa da. Eta erdi mailako edota maila altuko arriskua suposatzen duten delitugile ez sexualei eta paziente forentseei zuzendurik dago.

VRPren tratamenduaren garapena, helburu jakin batzuk lortzeko bideratuta dago, eta ez saio jakin batzuk betetzera. Behar desberdinak dituzten parte-hartzaileetara egokitu daiteke.

Hainbat ikerketen arabera, VRPk parte-hartzaileen bortizkeria maila orokorra nahiz delitu bortitzen berrerorketa maila gubitzeke gaitasuna du, psikopatia maila altua duten subjektuengan ere eraginkorra delarik.



Ted Bundy (Burlington, 1946 – Bradford, 1989), lehenengo psikopatikar moderno gise ezagutzen den serie-hiltzailek ezagunenetako bat.

Lagina

Martuteneko kartzelako
80 subjektu

- Sexualak ez diren pertsonen aurkako bortizkeria fisikoko delitu ez-sexualengatik kondenatuak
- PCL-R Psikopatia maila oso altua (>30)
- GIZONEZKOAK, adin eta arraza bereizkeriarik gabe

Tresnak

Psychopathy Checklist Revised (PCL-R); Robert D. Hare, 1991.

The Violence Risk Scale (VRS); Wong S. & Gordon A., 2006.

Autoestima neurtzeko Rosenbergen eskala

Etsaitasunaren inbentarioa (BDHI)

Emaitzak eta konklusioak

(Ez dago atal hau betetzerik, ez baitugu proiektua aurrera eman)

Helburuak

Helburu orokorra: Tratamenduak subjektuengan efekturik duen ikustea.

Helburu zehatzak:

- Tratamendua hasteko nolako motibazioa duen neurtzea.
- Autoestimua-maila neurtzea eta ikertzea.
- Etsaitasun-maila neurtu eta ikertzea.

Metodologia

N=80

Esperimentala (40)

Kontrol taldea (40)

ELKARRIZKETA (65 MIN)

10 psikologo

- Tratamenduarekiko espektatibak
- Autoestimua maila
- Etsaitasun maila

Tratamendua aplikatu:
- Indibiduala
- 5 psikologo (bakoitzak 8)

Bibliografia

Echeburúa, E., & Fernández-Montalvo, J. (1997). Tratamiento cognitivoconductual de hombres violentos en el hogar: un estudio piloto. *Análisis y Modificación de Conducta* (23), 355-384.

Garrido, V. (1993). *Manual de técnicas de tratamiento para delincuentes*. Madrid: Editorial Centro de Estudios Ramón Arece.

Hare, R., & McPherson, L. (1984). Violent and aggressive behavior by criminal Psychopaths. *International Journal of Law and Psychiatry*, 7 (1), 35-50.